

Liburuen merkatu txikia ospatuko da Anoeta datorren astean

Anoetako udalak gaur igandea Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, Liburuen Merkatu Txikia antolatu du datorren astean, urriaren 25etik 29ra, astelehenetik ostiralera. Bost egunetan Anoetako liburutegian dauden liburu bikoituak edo oso erabiliak kalean salgai jarriko dituzte, prezio sinboliko batean.

Liburu Merkatu Txikia arratsaldero egongo da irekia herriko plazan, 17:30etatik 19:30etara. Udaletxe aurrean mahai bat egongo da liburuz betea, 0,50 euro eta 3 euro bitarteko pre-zioekin. Mota guztietako liburuak eskuratu ahal izango dira, batzuk erabiliak baina beste batzuk bikoiztuak eta inoiz erabili gabeak. Era berean, aste horretan liburutegiko zerbitzuaren ordua aurreratuko da eta 16:00etatik 17:30etara egongo da irekia ohiko ordutegiaren ordean.